

# 2017ko urteko txostena: plagiziden hondakinak elikagaietan

EFSAren elikagaietako plagiziden hondakinei buruzko urteko txostenak ia **88.247** laginen emaitzak biltzen ditu, eta bertan 2017ko datu hauek aurki daitezke:

- **Laginen % 95,9k hondakinak legezko mugen azpitik (LMR) zituen.**

legezko mugaren azpitik  
(LMR) dauden laginak

2017ko laginetan plagiziden hondakin gehiago aurkitu izanaren arrazoa espreski zuzendutako laginen kapuru haundiagoa da. 2017ko lagin guztien %12,1k aurreko urteetan konforme ez zeuden produktu edo plagizidetara espreski zuzendu ziren. 2016an bakarrik %4,9 izan ziren lagin zuzenduak. Modu honetan, hondakinak aurkitzeko probabilitate haundiagoa dago.

- % 95,9 hauetatik, **% 54,1k ez zuen produktu horien aztarna detektagarririk** eta laginen % 41,8k hondakinak zituen, baina legezko mugen azpitik.

Kuantifikazio mugaren  
azpitik dauden lagin %  
LMRaren azpitik dauden  
lagin neurgarriak

- Beste herrialde batzuetako laginen **% 7,6k gainditu zituen legezko mugak**, **% 5,5k ageriki gainditu (ez konforme)** bazituen ere. Europari dagokionez, berriz, laginen **% 2,6k gainditu zituen legezko mugak**, baina **laginen % 1,3k ageriki**.

EBan jatorria duten  
produktuen laginen % ez  
konformea

Beste herrialde  
batzuetako jatorria duten  
produktuen laginen % ez  
konformea

## Umeentzako elikagaiak

**Umeentzako elikagaien** 1.546 lagin aztertu ziren: **% 94,6k ez zuen hondakin kuantifikagarririk.**

## Nekazaritza ekologikoko produktuak

**Produktu ekologikoen laginen % 98.5an ez zen plagiziden hondakinak atzeman** edo legezko mugen barruan aurkitu ziren.

Nekazaritza Ekologikoko  
produktuen muga  
kuantifikagarriaren azpiko %  
laginak

Umeentzako elikagaien  
muga kuantifikagarriaren  
azpiko % laginak

## Arriskuen Ebaluazioa Epe laburrera eta epe luzera


EFSAk, txosten honen datuak erabiliz, plagiziden hondakinen gaur egungo dietaren esposizioa europako pertsonentzako, epe laburrera (akutua) edo epe luzera (kronikoa), arriskutsua ote den adierazi du.

EFSAk ondorioztatu du **kontsumitzaileentzat oso txikia dela osasuna kaltetu dezaketen kontzentrazioen gainerako hondakin-kopuruen aurreko esposizioa izateko aukera.**

Halaere, EFSAk adierazten du estrategia erangikorragoak behar direla elikagaien aro goiztiarretan, Europar Batasuneko elikagaien segurtasun estandarrak hautsi ez dezaten. Honela, merkatura iristen diren produktu ez konformeen kopurua gutxitu daiteke.

## Ikerketaren emaitzak aztertzeko EFSaren infografia

Elikagaien edo estatuen plagiziden hondakinen kontsulta errazten duen infografia argitaratu du EFSAk bere web orrian. Sartu bertara argazkian klik eginez.



([https://www.efsa.europa.eu/en/interactive\\_pages/Pesticides\\_report\\_2017](https://www.efsa.europa.eu/en/interactive_pages/Pesticides_report_2017))


– Aurreko urteko txostenak

2016ko urteko txostena: Plagiziden hondakinak elikagaietan  
(<https://efsa.onlinelibrary.wiley.com/doi/full/10.2903/j.efsa.2018.5348>)

2015ko urteko txostena: Plagiziden hondakinak elikagaietan  
(<https://efsa.onlinelibrary.wiley.com/doi/epdf/10.2903/j.efsa.2017.4791>)

2014ko urteko txostena: Plagiziden hondakinak elikagaietan (<https://nekazaritza.elika.eus/berriak/urteko-txostena-plagiziden-hondakinak-elikagaietan-efsa-2016/>)

2013ko urteko txostena: Plagiziden hondakinak elikagaietan  
(<https://efsa.onlinelibrary.wiley.com/doi/epdf/10.2903/j.efsa.2015.4038>)



**ELIKA** Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .  
berri@elika.eus (mailto:berri@elika.eus)

Necessary Always Enabled